

Bartzelonan elkartu gara gaur Europarako Koalizioa babesteko gazte erakundeetako ordezkari eta hautagaiok.

Zortzi alderdi politikootako ordezkariak biltzen dituen Koalizioa osatzen dugu eta bakean, askatasunean, aniztasunean, solidariotasunean eta demokrazia partehartzailean oinarritutako Europar Batasunean sinesten dugu.

1. Gatazka armatu zein politikoak, elkarriketaren bidez konponduko dituen Europan sinesten dugu. Asko izan dira sufrimendu urteak eta horregatik ezin dugu etsi bakea tresna demokratiko eta baketsuen bidez erdietsi arte.
2. Ez dugu onartuko emakume eta gizon guztien askatasun bera errespetatuko duen Europar Batasunik. Sexu askatasuna, pentsatzeko askatasuna, erlijio askatasuna... bereiztu behar gaituena da pertsona egiten lagunduko diguten funtsezko eskubideen aldeko defentsaren aldarrikapena.
3. Gure iritziz, funtsezkoa da europar gizartea berregituratzea, kontinente zaharraren baloreak berpizteko, hau da, ezberdinen arteko solidariotasuna moduko baloreak, batez ere gaur egungo krisialdi ekonomikoak eragiten digun egoera latz honen aurrean. Eredu sozialago eta jasangarriagorantz abiatuko gaituen Europa eraiki nahi dugu.

Europar Gizarte Fondoaren bidez garatu beharko litzateke berariaz egindako politika sendoa, langabezia moduko arazo larriari aurre egiteko. Egoera honek, etxebizitza finantzatzeko politika ez erabakigarriarekin batera, oztopoak jartzen dizkielako emantzipazio prozesuei.

4. Gure ustez, Europa izan beharko litzateke, zoritzarreko egoerengatik etxea utzi eta bizimodu hobearen bila arriskuak bizi behar dituzten etorkinen etxea; hori bai, neurriak ezarri behar dira era on eta seguruan etor daitezen. Honen azpian datzan erronka da europar berri hauen integrazioa prozesu baikor gisa erakustea, hau da, berez interkulturala den Europa batzen duena.
5. Defendatzen dugun Europar Batasunean, gure hizkuntza guztiak ofizialak izango dira bere instituzio guztietan, eskubidea dugulako gure hizkuntzan adierazteko. Ele bakartasunaren aurrean. Europarako Koalizioak eleaniztasuna defendatzen du gure herriek europar baloreak beregana ditzaten.
6. Gure herriek beren etorkizuna erabakitzeko eskubidea dute, Europako hainbat herri erabaki duten moduan. Eta etorkizun hori dago zalantzarik gabe Europar Batasunaren barruan, herri, erregio eta nazioek gaurko Estatuek inposatuko ez dituzten bitartekorik gabeko ordezkaritza zuzena izan dezaten.
7. Hiritarren parte hartze zuzena ardatz nagusia izango den Europar Batasunaren aldeko apustua egiten dugu. Horretarako, behar beharrezkoa da, ekainaren 7an

aukeratuko dugun Europar Legebiltzarrari eskumen legegile zabalagoak ematea, europarren bizitzan eragina duten gaien inguruan.

8. Orokorrean, gazteriaren ordezkaritza Batasunaren instituzio zare zabalean integratzeko neurriak hartu behar dira, Batasunaren politikak garatzeko eta egikaritzeko orduan, gazte ikuspuntu trasbertsala aplikatuz. Horretarako, beharrezkoa da gazteentzako hiritargo aktiboa martxan jartzea, jarduera politikoan ahalik eta protagonismorik handiena bultzatuz.
9. Denon artean, Europa lehiakorra eraiki behar dugu, berritzailea eta gazteei aukerak emango dizkiena. Hori egin ahal izango da ikasleen bekak handituaz, EEE guztietan tituluen homologazioa ezarriaz, ikasketak eta lana bateragarri egiteko Ikasle Kontratua sortuz eta Erasmus egitasmoaren bidez mugikortasuna sustatuaz.

Bologna Prozesuak bultzatzen duen sistema berriak arlo baikorrak ditu(tituluen balio bera, ikaslearen etxean lanak duen balioa handitzea, zuzenketaren subjektibotasuna mugatzeko ahalegina) eta ezkorrak (sistema elitista , pribatua ezartzeko arriskua, hezkuntza sistema bakoitzaren berezitasunak galtzeko arriskua, kosteak handitzeko arriskua...)

Hezkuntza sistema integratzaile eta berdintzailea defendatzen dugu, ezberdintasun ekonomiko eta sozialak zuzentzeko joera izango duena; europar gazteen hezkuntza, prestakuntza eta nortasun soziala hobetzeko neurriak ezarriko diren sistema. Horrela egiten badugu, hausnarketan oinarritutako heziketa eskuratuko dugu, ingurua kritikatzeko gaitasunarekin eta gazteengan aurrera egiteko eta oztupoak gainditzeko gogoia sustatuz.

10. Sozialista eta popularren bloke handietatik ihes egin nahi duten gazte guztiak ordezkatu nahi ditugu, politika egiteko beste era bat dagoela pentsatzen duten gazteak, bloke hauek ezaugarri dituzten mugiezintasun eta fundamentalismotik urrun.

Azken finean, beren bakantasuna, berezitasuna defendatzen duten gazte guztiak ordezkatzeko ditugu eta inposatu nahi diguten ideologi kolore bakarraren aurrean. Zalantzarik ez izan, Europarako Koalizioak hurbileko interesak defendatuko dituela.

Idea hauek badituzu eta elkarrekin Europar Batasun dinamikoagoa eraiki ahal dugula pentsatzen baduzu, bozka ezazu **Europarako Koalizioa**

Nos encontramos hoy aquí en Barcelona representantes y candidatos de distintas organizaciones juveniles en apoyo de la Coalición por Europa:

1.Somos una Coalición formada por ocho partidos políticos que creemos en una Unión Europea basada en los principios de paz, libertad, diversidad, solidaridad y democracia participativa.

2.Creemos en una Europa donde los conflictos, tanto armados como políticos, puedan solucionarse mediante el diálogo. Son muchos los años de sufrimiento y dolor, por ello no debemos cejar en nuestro empeño por alcanzar la paz a través de instrumentos pacíficos y democráticos.

3.No entendemos una Unión Europea donde no se respete la libertad de todos los hombres y mujeres: libertad sexual, ideológica, religiosa... Si algo nos debe diferenciar es la defensa de todos aquellos derechos fundamentales que nos permiten formarnos como personas.

4.Entendemos que es necesaria una refundación de la sociedad europea, donde resurjan los valores del viejo continente, como la solidaridad entre los distintos, especialmente en estos días en que los jóvenes estamos siendo azotados de manera virulenta por la crisis económica- financiera. Queremos construir una Europa que camine hacia un nuevo modelo más social y más sostenible.

Es fundamental desarrollar mediante el Fondo Social Europeo una política específica de alta intensidad dirigida a los jóvenes que se enfrentan a un gravísimo problema de desempleo que dificulta junto a una política poco decidida de financiación de la vivienda los procesos emancipatorios.

5.Estimamos que Europa debe ser el nuevo hogar de aquellos inmigrantes que por circunstancias desafortunadas deben correr numerosos riesgos en busca de una vida mejor, si bien es esencial establecer medidas de control para que lleguen de un forma racional y segura. El reto latente es mostrar la integración de estos nuevos europeos como un proceso positivo y de suma a una Europa que ya de por si es intercultural.

6.Defendemos una Unión Europea donde nuestras lenguas sean oficiales en todas sus instituciones, porque tenemos el derecho a expresarnos en nuestro idioma. Frente al monolingüismo, Coalición por Europa defiende el multilingüismo como mecanismo para que nuestros países puedan identificarse con los valores europeos.

7.Consideramos que nuestros pueblos tienen el derecho a decidir su futuro, del mismo modo en que otros pueblos europeos lo han hecho recientemente. Y ese futuro se encuentra sin lugar a duda dentro de una Unión Europea donde los diferentes pueblos, regiones y naciones tengan representación sin intermediarios impuestos por los Estados actuales.

8.Apostamos por una Unión Europea en la que la participación directa de los ciudadanos sea el eje central. Para lo cual es fundamental dotar al Parlamento

Europeo que elegiremos el próximo día 7 de junio de mayores competencias legislativas en materias de mayor calado en la vida de los y las europeos.

Se deben tomar con carácter general medidas encaminadas a integrar la representación de la juventud en el extenso entramado institucional de la Unión, aplicando una perspectiva juvenil transversal en el desarrollo y ejecución de las políticas comunitarias.

Para ello es necesario poner en marcha una ciudadanía activa para los jóvenes, concediéndoles el máximo protagonismo en la actividad política.

9. Entre todos debemos construir una Europa competitiva, innovadora y de oportunidades para los jóvenes. Esto sólo será posible aumentando las becas de estudiantes, estableciendo la homologación de los títulos a todos las EEES, creando un Contrato del Estudiante para compatibilizar el estudio y el trabajo, y fomentando la movilización mediante el programa Erasmus.

El nuevo sistema impulsado por el Proceso de Bologna presenta tanto aspectos positivos (equiparación de títulos, incremento del valor del trabajo en casa del estudiante, esfuerzo por acotar la subjetividad de la corrección...) como negativos (riesgo de implantar un sistema elitista y de carácter privatista, peligro de perder las singularidades de cada sistema educativo, aumento de costes económicos...).

Defendemos un sistema educativo integrador e igualitario, tendente a corregir las desigualdades económicas y sociales; donde se establezcan medidas concretas para mejorar la educación, la formación y la integridad social de los jóvenes europeos. De este modo, lograremos educarnos en la reflexión, en la capacidad crítica de lo que nos rodea, inculcando a los jóvenes el ansia de superación.

10. Queremos representar a todos aquellos jóvenes que huyen de los dos grandes bloques, socialistas y populares, y que entienden que existe otra manera distinta de hacer política, lejos del inmovilismo y en ocasiones fundamentalismo que les caracteriza.

En definitiva, representamos a todos aquellos jóvenes que defienden su singularidad frente al monocolor ideológico que nos intentan imponer; y que no tienen dudas de que Coalición por Europa defenderá sus intereses más cercanos.

Si compartes estas ideas con nosotros y crees que juntos podemos construir una Unión Europea más dinámica **vota a Coalición por Europa!**